

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Aramaio Udala

Ayuntamiento de Aramaio

2011





AURKIBIDEA/ÍNDICE

| | |
|--|-----------|
| 0. LABURDURAK | 5 |
| I. SARRERA | 7 |
| II. IRITZIA | 8 |
| II.1 UDALA | 8 |
| II.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA..... | 8 |
| II.1.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA..... | 9 |
| II.2 ARAMAIOKO ARGINDAR BANATZAILEA, SA SOZIJETATE PUBLIKOA. 10 | |
| II.2.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA..... | 10 |
| II.2.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA..... | 10 |
| III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK | 11 |
| III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA..... | 11 |
| III.2 LANGILERIA..... | 12 |
| III.3 KONTRATAZIOA | 13 |
| III.4 BESTELAKO ALDERDIAK | 14 |
| III.5 ARAMAIOKO ARGINDAR BANATZAILEA, SA SOZIJETATE PUBLIKOA. 15 | |
| IV. FINANTZA ANALISIA | 16 |
| V. URTEKO KONTUAK | 19 |
| V.1 UDALA | 19 |
| V.2 ARAMAIOKO ARGINDAR BANATZAILEA, SA | 22 |
| 0. ABREVIATURAS | 23 |
| I. INTRODUCCIÓN | 25 |
| II. OPINIÓN | 26 |
| II.1 AYUNTAMIENTO | 26 |
| II.1.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD..... | 26 |
| II.1.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES..... | 27 |
| II.2 SOCIEDAD PÚBLICA ARAMAIOKO ARGINDAR BANATZAILEA, SA ... | 28 |
| II.2.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LEGALIDAD..... | 28 |
| II.2.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES..... | 28 |



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

| | |
|---|-----------|
| III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL | |
| INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN | 29 |
| III.1 PRESUPUESTO Y CONTABILIDAD | 29 |
| III.2 PERSONAL | 30 |
| III.3 CONTRATACIÓN | 31 |
| III.4 OTROS ASPECTOS | 32 |
| III.5 SOCIEDAD PÚBLICA ARAMAIOKO ARGINDAR BANATZAILEA, SA ... | 33 |
| | |
| IV. ANÁLISIS FINANCIERO | 34 |
| V. CUENTAS ANUALES..... | 38 |
| V.1 AYUNTAMIENTO | 38 |
| V.2 ARAMAIOKO ARGINDAR BANATZAILEA, SA | 41 |
| | |
| ANEXOS | 43 |
| A.1 Naturaleza del ente fiscalizado..... | 43 |
| A.2 Presupuesto y modificaciones presupuestarias | 44 |
| A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos | 46 |
| A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones | 47 |
| A.5 Gastos de personal | 48 |
| A.6 Compra de bienes corrientes y servicios..... | 49 |
| A.7 Transferencias y subvenciones concedidas | 50 |
| A.8 Inmovilizado y patrimonio en situaciones especiales..... | 51 |
| A.9 Pasivos financieros | 52 |
| A.10 Deudores presupuestarios..... | 53 |
| A.11 Conciliación resultado presupuestario y patrimonial..... | 54 |
| A.12 Contratación | 55 |
| A.13 Sociedad Pública Aramaioko Argindar Banatzailea, SA..... | 57 |

Vitoria-Gasteiz, 2013ko irailaren 25a
Vitoria-Gasteiz, 25 de setiembre de 2013



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

0. LABURDURAK

| | |
|-----------|---|
| 3/2004 FA | 3/2004 Foru Araua, uztailaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoaren Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoa. |
| AFA | Arabako Foru Aldundia |
| ALHAO | Arabako Aldizkari Ofiziala |
| APKLEO | 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzeko dena. |
| BEZ | Balio Erantsiaren gaineko zerga |
| BOE | Estatuko Aldizkari Ofiziala |
| DOUE | Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala |
| EEP | Enpleguaren Eskaintza Publikoa |
| EFPL | 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa. |
| FEPEL | Toki Erakundeen Partaidetza Egonkortzeko Funtza |
| FOFEL | Udal Finantzaketarako Foru Funtza |
| KPI | Kontsumorako Prezioen Indizea |
| LZ | Lanpostuen Zerrenda |
| SPKL | 30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa. |
| TAOAL | 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen. |





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (aurrerantzean HKEE) otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osokoak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraiki, Aramaioko Udalaren 2011ko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: Honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta diru-laguntzen emakida.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako atal hauek besarkatzen ditu: Udalaren eta udal sozietate publikoaren egoeraren balantzea, galera-irabazien kontua, oroitidazkia eta aurrekontuen likidazioa.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta zuhurtasunari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, Udalaren kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi ere, fiskalizazioan zehar sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.

Aramaioko udalerrriak 1.496 biztanle ditu 2011ko urtarrilaren 1eko udal erroldaren arabera eta bere egituran, Udalaz gain, Aramaioko Argindar Banatzailea, SA udal sozietate publikoa barne hartzen du, zeinetan udal partaidetza % 100 den eta xede soziala, argindarra banatzea, gai energetiko mota oro komertzializatzea eta eragiketa horiekin zuzenean nahiz zeharka lotutako zerbitzu eta jarduera oro ematea duen.

Gainera, 2011ko apirilaren 20ko Osokoak Aramaixo Basarri Barri "ABB" Fundazioa sortzea onetsi zuen, Euskal Herriko Fundazioen Erregistroan 2012ko uztailaren 16ko Justizia eta Herri Administrazioiko Sailburuaren Agindu bidez jasotakoa. Oso-osorik udalarena den fundazioaren zuzkidura 5.000 eurorena da. Fundazioaren xedea garapen ekonomiko, sozial eta kulturala da, nagusiki Aramaioko udalerrian garatzekoa. Fundazioak ez du jarduerarik izan 2011ko ekitaldian zehar.

Berebat, Udala Zuiako Kuadrillaren, Gorbeia Inguruetako Partzuergoaren eta Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearen (UEMA) kide da.

II. IRITZIA

II.1 UDALA

II.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

ZERGA SARRERAK

1. Udalak ez ditu Hiri Izaerako Lursailen Balioaren Igoeraren gaineko Zergari lotutako egitate zergagarrien gaineko kitapenak egiten, behin 2005eko urriaren 14ko ALHAOn behin-betiko argitaratu ondoren ordenantza fiskala indarrean sartu zenez geroztik. Horrek 41/1989 Foru Arauaren 19. artikulua, uztailearen 19koa, urratzen du, Arabako Toki Ogasunak arautzen dituena.

AURREKONTUA

2. Udalak beste obra batzuei atxikitako diru-sarrera konpromisoak baliatu ditu finantzaketa iturri modura honako hauetan: Errotabarri eta Zalgoren urbanizazioko kredituen txertaketan, 52.181 euroren zenbatekoan eta Gorrien Bidea zaharberritzeko lanen eta CII eraikinaren 2. fasea eraikitzeke lanen kreditu gehigarrian, 256.375 eurorena; horrek guztiak 3/2004 FAre 32 eta 34 artikulua urratzen ditu. Konpromiso horiek Diputatuen Kontseiluak 2009ko abuztuaren 3an aipatutakoez besteko lanetarako baimendutako mailegu batetik erabiltzeko zeuden diru zenbatekoei dagozkie.

LANGILERIA

3. Udalak ez ditu oinarrizko ordainsariak abenduaren 22ko 39/2010 Legean finkatutako kopuruetara egokitu, 2011 urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. 2011ko ekitaldian enplegatu publikoen ordainsariak 2010eko abenduaren 31n indarrean zeudenekin bat datoz, izan ere horiei ez zitzaizkien ekitaldi horretako soldatu murrizketak ezarri, aipatutako Legearen 22. artikulua urratuz; murrizketa horiek 2012ko ekitaldian ezarri dira.

KONTRATAZIOA (ikus A.12)

4. CII ikerketa zentroaren eraikinaren 2. fasea eraikitzeke lanen proiektuan, 423.556 euroan esleitu zirenak, ez dira kanpoaldeko urbanizazio lanak barne hartu, Administrazioarentzat kosturik gabeko hobekuntza modura balioztatu direnak. Obren proiektuek zehaztasunez definitu behar dute kontratuaren xedea, SPKLren 105. artikulua agintzen duen moduan eta esleipen irizpideak zuzenean xede horri lotuko zaizkio, SPKLren 134. artikuluari jarraiki. Bestalde, ez da justifikatu prezioa esleipen irizpide modura ez baliatzea (4. espedientea).



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Epaitegi honen ustetan, Aramaioko Udalak, 1etik 4ra bitarteko paragrafoetan aipatutako lege hausteak alde batera, zuzentasunez bete du 2011ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

II.1.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Aramaioko udalak 2011ko abenduaren 31n ordaintzeke dauka 2008, 2009 eta 2011ko ekitaldietan FOFELen likidazio negatiboen FEPELi dagokion zenbatekoa, 316.431 eurorena; horren likidazioa etorkizuneko likidazio positiboen kontura gauzatuko da. Berebat, data horretan ordaintzeko dago 39.029 euroren zenbatekoa, 2011ko ekitaldiko FOFELen likidazio negatibotik eratorritakoa; kopuru hori 2012ko ekitaldiko partaidetzatik murriztuko da. Kopuru horiek ez dituzte 2011ko abenduaren 31ko Diruzaintza Geldikinetik kendu eta Egoeraren Balantzean ere ez daude ordaintzeko zor modura jasoak.

1. Udalak ez du 2011ko abenduaren 31n gaurkotutako ondasun eta eskubideen zerrendarik, egoeraren balantzean jasotako ibilgetuaren kopurua data horretako ondasun eta eskubideen egiazko egoerarekin bat datorren ondorioztatzen utziko duena.
2. Epaitegi honen iritzira egin behar ziratekeen doiketek ondotik zehaztutako eragina dute 2011ko abenduaren 31ko Diruzaintza Geldikinaren, Egoera Balantzearen eta Funtz Propioen gainean:

| Kontzeptua | Euroak milakotan | | | |
|--|---|-----------|----------------------|----------------|
| | Aurrekontuzkoa Diruzaintza geldikina | Aktiboa | Ondarekoa Pasiboa | Funtz propioak |
| 11.12.31n sortutako eta erregistratu gabeko eskubideak | | | | |
| A.4 Gorrien bidea egokitzeko lanaren finantzaketa..... | 19 | - | (19) | 19 |
| A.13 Aramaioko Argindar Banatzailea, SAri fakturatutako diru-sarrerak..... | 120 | 140 | 20 | 120 |
| Sortu gabeko eta 11.12.31n erregistrat. eskubideak | | | | |
| A.10 Errotabarri eta Zalgo urbanizatzeko AFAREN diru-laguntza | (75) | (75) | - | (75) |
| D.G.ri finantziazio-desbideratzeak 11.12.31n | | | | |
| A.3 UE-6 pasabidearen abalaren exekuzioaren afektazioa | (72) | - | - | - |
| Ondare doiketak | | | | |
| A.3 Errolda, ura, estolderia eta zaborren 6. bihilekoko diru-sarrerak..... | - | 19 | - | 19 |
| A.9 FOFELen likidazio negatiboen itzuleragatiko zorra..... | - | - | 355 | (355) |
| GUZTIRA | (8) | 84 | 356 | (272) |

Epaitegi honen iritzira, 1. eta 2. paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, Aramaioko Udalaren Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2011ko ekitaldiaren aurrekontu ekitaldiaren jarduera ekonomikoa erakusten dute, ondarearen eta 2011ko abenduaren 31n finantza egoeraren isla zorrotza eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian zehar bere eragiketen emaitzena.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II.2 ARAMAIOKO ARGINDAR BANATZAILEA, SA SOZIETATE PUBLIKOA

II.2.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

LANGILERIA (ikus A.13)

1. 2010eko martxoan Sozietatearen Lehendakariak langile batekin izaera mugagabeko kontratu berria izenpetu zuen, tartean hautaketa prozesurik batere bideratu gabe; langilea 2009ko ekainaz geroztik enpresan iraupen mugatuko aldi bateko kontratu batekin ari zen lanean. Kontratazio honek Funtzio Publikoan kontratazioa arautzen duten publikotasun, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak eta Sozietatearen Estatutuetan xedatutakoa urratzen ditu. Langile horren ordainsariak % 17 gehitu ziren 2011n, lanaldia luzatu izanaren ondorioz, aurretik Administrazio Kontseiluak horretarako baimenik eman gabe.

Epaitegi honen ustetan, Aramaioko Argindar Banatzailea, SAK, aurreko paragrafoan aipatutako ez-betetzea alde batera, zuzentasunez bete du 2011ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

II.2.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

2. Epaitegi honen iritzira egin behar ziratekeen doiketek ondotik zehaztutako eragina dute Sozietate publikoaren 2011ko abenduaren 31ko Egoera Balantzearen eta Funtz Propioen gainean:

| Kontzeptua | Euroak milakotan | | |
|---|------------------|--------------|----------------|
| | Aktiboa | Pasiboa | Funtz propioak |
| A.13 Udalak errentan emandako instalakuntza teknikoak | (912) | (912) | - |
| A.13 Kontabilizatutako eta sortu gabeko gastuak | - | (43) | 43 |
| GUZTIRA | (912) | (955) | 43 |

Epaitegi honen iritzira, aurreko idatz-zatian adierazitako salbuespenak alde batera, Aramaioko Argindar Banatzailea, Saren Urteko Kontuek 2011ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta ondarearen eta 2011ko abenduaren 31n finantza egoeraren eta ekitaldian eragiketen emaitzen isla zuzena erakusten dute.



III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

III.1 AUREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- 2011ko ekitaldiaren Aurrekontu Orokorren behin-betiko onespena 2011ko otsailaren 9ko ALHAOn argitaratu da; ez dira, baina, Aramaioko Argindar Banatzailea, SA sozietate publikoari dagokionez 2010eko abenduaren 29an Osokoak onartutako aurrekontuak barne hartu.
- 2011ko ekitaldiaren Kontu Orokorra 2012ko irailaren 25ean onartu zen eta ez ditu Aramaioko Argindar Banatzailea, SA sozietate publikoaren finantza egoerak barne hartzen. Gerora, 2012ko azaroaren 8ko Osokoak Kontu Orokor horren zuzenketa onartu eta Sozietate Publikoa gehitu zuen. 3/2004 FAREN 63. artikulua urratu da, Kontu Orokorra hurrengo urteko uztailaren 31 baino lehenago onartzea aurreikusten baitu.
- Udalak 2011ko ekitaldian 3 milioi euroren aurrekontuko aldaketak onetsi ditu, hasiera batean onetsitako aurrekontuaren gainean % 121eko igoera egin dutenak:

Aurreko ekitaldietatik eratorritako kreditu txertaketak, 2,1 milioi eurorenak, aurreko ekitaldiaren itxierara lotutako finantzaketa zuen Diruzaintza Geldikin bitartez % 75ean finantzatzeko inbertsioei dagozkie oso-osorik, izan ere Udalak diru-sarrerara modura kontabilizatu zuen beste Administrazio Publiko batzuek emandako diru-laguntza.

Kreditu gehigarriak, 847.253 eurorenak, 2011ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorra onartu ostean sortutako beharrezanez dagozkie, Gorrien bidea zaharberritzeko lanei dagokiena salbu, 84.420 eurorena.

Aurrekontu aldaketen kopuru handi hau jasotako diru-laguntzen kontzeptuko diru-sarreraren erregistroak eta diru-laguntzak emateko unean dagozkion gastu kredituak gehitzeak eragin du. Dela sarreraren, dela gastuen aurrekontuetaratzea, dagozkion obrak gauzatuko direla aurreikusten den aurrekontuan gauzatu behar da eta obra ekitaldi batetik haratago luzatzen bada, konpromiso kredituen moldea baliatuko da.

- Udalak ez ditu 2011ko ekitaldiaren Aurrekontu Likidazioan jaso Olaetako Administrazio Batzordeari AFAk eman eta Udalak abalez babestutako maileguaren itzulera finantzatzeko hartutako konpromisoak, 2011ko ekitaldiaren 31n 41.526 euro egin dutenak, 3/2004 FAREN 47. artikuluan xedatutakoaren aurka (ikus A.7).
- Udalak ez ditu egoki kontabilizatzen gastuaren baimen eta erabilera faseak, 3/2004 FAREN 40. artikulua agintzen duen moduan.
- Udalak oker kalkulatu du 2011ko ekitaldirako gastuei loturik finantzatzeko baliabideen desbideratze kontzeptuan emaitza doitzeko zifra, izan ere, fiskalizazio-gai izan den ekitaldiaren eta aurre-aurreko ekitaldiaren artean Diruzaintza Geldikina finantzatzeko



desbideratzeen arteko aldetik eskuratutako zenbatekoan ez ditu ekitaldi bakoitzeko finantzaketa akatsak aintzat hartu.

- Udalak ez du 2002ko ekitaldia baino lehenago eratutako berme eta abalen xehapen banakaturik, ondare kontuetan 2011ko abenduaren 31n hurrenez hurren 14.005 eta 82.618 euroan jasotakoak. Gomendagarria litzateke Udalak kontularitzako saldoen azterketa xehatua egitea, hartara horiek garbitzearren.

III.2 LANGILERIA

- 2011ko ekitaldian indarrean zegoen LZk lan kontratu finkoko langileentzat gordetako lanpostua barne hartzen du (administrari laguntzailea); ordea, funtzionarioentzat gordea behar zukeen egon, EFPLren 19. artikulua aurreikusten duen moduan; berebat, aldi baterako langileentzat gordetako lanpostua barne hartzen du (euskara teknikaria), EFPLren 14.1 artikulua agindutakoaren aurka.
- Aurrekontu Orokorren espedientean barne hartutako langileen eranskinak ez du EFPLren 21. artikuluan aurrekontu plantillei eskagarria zaien xehapena jasotzen, ez baititu funtzionario eta lan kontratupeko langile bakoitzaren arabera ordainsari kontzeptu bakoitzeko kopuruak bereizten.
- Txosten hau idatzi dugun datan, Udalaren plantillan lanaldi partzialarekin obra edo zerbitzu jakineko kontratua duen langile bat dago, 2002ko irailaren 18an izenpetutakoa, eta kontratuaren xedea euskara normalizatzeko plan eta jarduerak diseinatzea da. Kontratu hau egin denetik, Osokoak lau urteko izaerarekin euskara normalizatzeko hainbat plan onartu ditu eta indarrean da Osokoak 2011ko otsailaren 23an onartutakoa. Aldi baterako kontratuetan administrazio publikoek zehaztu egin behar dute kontratuaren xedearen iraupen aldia.
- 2011rako Aurrekontua egikaritzeko arauak zinegotzien erantzukizun mailaren arabera banatzen zaizkien laguntzak ditu alderdi politikoentzat. Diru-izendapen hauek 2011ko ekainera arte atxiki gabeko zinegotziei ere ordaindu zitzaizkien eta kasu honetan Udalak ez ditu Foru Ogasunaren aurrean aitortu eta zinegotzi mota honi esleitzeko moldea ere arautu gabe dago udalaren erregelamendu organikoan, TAOAren 73.3 artikulua agintzen duen moduan.

III.3 KONTRATAZIOA

Fiskalizazio-gai izan den urtean indarrean zeuden 8 kontratu nagusiak aztertu ondoren, honako alderdi hauek azalera zaizkigu (ikus A.12):

- Espedientea

423.556 euroan esleitutako obra kontratu batean proiektua Alkatetza Dekretu bitartez onartu da, Udaltzak onartu beharrean, SPKLren 105. artikulua agintzen duen moduan (4. espedientea).

2 kontratari dagozkien pleguek, bata 316.910 euroan eta bestea aleko prezioen arabera - 38.379 euroren egikaritza izan duena- esleitutakoak, besteak beste, lehiatzaileen eskarmentuan oinarritutako esleipen irizpideak barne hartzen dituzte eta horiek kaudimen irizpideen atal behar dute izan, SPKLren 65. eta ondoko artikuluek agintzen duten moduan (1. eta 8. espedienteak).

379.954 euroan esleitutako 4 kontratutan prezioaren irizpiderako pleguetan jasotako formulak, objektiboa eta publikoa izanagatik, urritu egiten du hasiera batean aurreikusitako haztapena (3, 5, 6 eta 7 espedienteak).

- Esleipena

82.500 euroan esleitutako zerbitzu kontratu batean, enpresa esleipendunak –ondasun elkarte modura eraturik- ez du administrazioarekin kontratatze gaitasunik, SPKLren 43. artikulua urratuz. Berebat, esleipen hartzaileak ez dio Udalari zerbitzuaren kudeaketan bildutako zuzenbide publikoko diru-sarreraren kontuen aitorpena aurkeztu, kontratuaren plegu teknikoek aurreikusten duten moduan (5. espedientea).

Aleko prezioetan esleitutako zerbitzu kontratu batean, 38.379 euroren egikaritza zuena, esleipena eman zitzaion eskaintza lehia prozesuan pertsona fisikoen talde batek aurkeztu zuen, etorkizunean kooperatiba modura eratzeko konpromisoarekin. Kontratua kooperatiba horrekin izenpetu zen. Enpresaburuen aldi baterako batura da indarreko kontratazio araudiak hainbat enpresaburuk elkarrekin eskaintza aurkezteko ematen duen salbuespen bakarra; baita, lehia prozesuan eratu gabeko pertsona juridikoekin kontratuak esleitu eta gauzatzekoa. Kooperatiba eratzeko izapidearen ondorioz, 20 lanegunetan gainditu da SPKLren 135.4 artikuluan behin-behineko esleipena behin-betiko egiteko ezarritako epea (8. espedientea).

292.080 euroan esleitutako kontratu batean formulak aplikatuta kalkulatzen diren irizpideak balio judizio baten baitako diren irizpideak baino lehenago balioztatuta dira, SPKLren 134.2 artikulua aurreikusten duenaren aurka (2. espedientea).

Guztira 316.910 euroan esleitutako kontratu batean behin-betiko esleipena ez da ALHAOn argitaratu eta horrek SPKLren 138.2 artikulua urratzen du (1. espedientea).



- Egikaritzita eta harrera

Guztira 608.990 euroan esleitutako 2 obra kontratutan, ez da zuinketa egiaztatzeko akta gauzatu edo akta 1,5 hilabeteko atzerapenez gauzatu da, SPKLren 212. artikulua agintzen duenaren aurka (1. eta 2. espedienteak).

316.910 euroan esleitutako obra kontratu batean kontratazio atalak onartutako kontratu aldaketa ez da administrazioko agiri bidez gauzatu, SPKLren 202. artikulua agintzen duen moduan (1. espedienteak).

Guztira 1 milioi euroan esleitutako 3 obra kontratutan, exekuzio epeak urratu direla ikusi dugu, hurrenez hurren 7, 3 eta 2 hilabetetan, epea luzatzeko dagozkion onespenez bideratu gabe, SPKLren 197. artikulua agindutakoari jarraiki (2, 1 eta 4 espedienteak).

Guztira 608.990 euroan esleitutako 2 obra kontratutan, ez da zuinketa egiaztatzeko akta gauzatu edo akta hurrenez hurren 6 hilabete eta 15 eguneko atzerapenez gauzatu da, SPKLren 205. artikulua agintzen duenaren aurka (1. eta 2. espedienteak).

Aztertutako lau zerbitzu kontratutan, hiru 196.874 euroan esleitutakoak eta bat aleko prezioetan, 38.379 euroren egikaritzita izan duena, kontratazio atalak ez du pleguetan aurreikusitako luzapenen bat onartu edo onarpena atzerapenez egin da, SPKLren 23. artikulua urratuz (5, 6, 7 eta 8 espedienteak).

Gainera, aztertutako espedienteetan izaera orokorrekin honako akats hauek aurkitu ditugu:

- Udalak ez du egiaztatzen eskaintza ekonomikoek balio ezohikoak edo neurrigabeak aurkeztzen dituzten pleguetan ezarritako irizpideekiko, edo kasua balitz, APKLEOren 85. artikuluan ezarritakoarekiko.
- Aztertutako zenbait espedientetan “Udalarentzat kostu ekonomikorik gabeko hobekuntzak” esleipen irizpideak eskuratutako puntuazioak ez du aurkeztutako eskaintza ekonomikoen emaitzarekiko aurrezki ekonomiko proportzionalik eskuratzea lortzen.
- Aztertutako zerbitzu-kontratuetan pleguek zehaztasun eza erakusten dute erreferentziazko KPIn (estatukoa edo erkidegokoa eta aintzat hartu beharreko aldia), prezioak berrikusteko klausulan. Gainera, aipatutako kontratuetan prezioak berrikustean homogeneotasun eza dagoela ikusi dugu.

III.4 BESTELAKO ALDERDIAK

- 2011ko ekitaldian kontratazio espedienteek izan duten egikaritzari dagokionez, hainbat ordainketa uztailaren 5eko 15/2010 Legeak ezarritako epea gaindituta egin direla ikusi dugu, 335.045 euroren zenbatekoan; lege honek abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten du, merkataritzako eragiketetan berandutzaren aurkako neurriak finkatzen dituena, (4 faktura, aztertutako zenbatekoaren % 30a egiten dutenak). Berandutza horien arrazoia, nagusiki, ziurtagiria Udalbatzak onartzetik eratoritzen da, atal hau kontratazio organo denean, Aurrekontu Exekuziorako Udal Arauak (AEUA) agintzen



duen moduan; izan ere, deialdiak hilabeteko maiztasunez egiten direnez pilatu egiten da atzerapena. Udal artekaritzak ez ditu 2011ko ekitaldian aurreikusitako ordainketa epeak betetzeari dagokionez hiruhilero Osokoari aurkeztu behar dizkion txostenak egin, aipatutako legearen 4.3 artikulua agintzen duen moduan.

- 2011ko apirilaren 10eko Osokoak Aramaixo Basarri Barri, "ABB" Fundazioa sortzea erabaki zuen eta Udalak fundazio-zuzkidura osorik jarri zuen, 5.000 euro. HKEEk honako alderdi hauek azpimarratu ditu:
 - Espedientean ez da justifikatu molde juridiko hau denik egokiena eskuratu asmo diren helburu publikoak lortzeko.
 - Fundazioaren Patronatua da Fundazioaren gobernu-organoa eta 11 kidek osatzen dute; horietatik 3 baizik ez dira udal ordezkariak eta Administrazioak ez du helburu publikoak beteko direla bermatzea bideratuko duen kontrol eta zuzendaritza boterea gorde.
 - Fundazioaren estatutuen arabera, jarduteko lurralde-eremua ez da soilik udal eremura mugatzen, baizik eta toki-erakundeen eskumen-esparrua gainditzen du.

III.5 ARAMAIOKO ARGINDAR BANATZAILEA, SA SOZIETATE PUBLIKOA

- Argindarra banatzeko udal zerbitzua oso-osorik udal jabetzakoa den sozietate publiko honen kudeaketa zuzen bitartez gauzatzen da, Sektore Elektroari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legean jasotakoari jarraiki. Jarduera hau garatu ahal izateko, 2002ko urriaren 30eko Udaltzak Aramaioko Argindar Banatzailea, SAREN esku Udalaren jabetzako instalakuntza teknikoak jarri zituen, errentamenduan, errentaren kanona finkatu gabe. Gainera, Udalaren beraren langileek hainbat betebeharrak egiten dituzte eta Sozietate Publikoari fakturatzen dizkiote. Sozietateak 2011ko ekitaldian errentamendu eta udal langileek zerbitzu emate kontzeptuan kontabilizatutako gastua 100.000 eurorena izan da, BEZ barne. Beharrezkoa da alde bietan udal zerbitzuaren mandatua arautzea, eta besteak beste, baldintza ekonomikoak finkatzea.



IV. FINANTZA ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua.

| | Euroak milakotan | | | Euroak biztanleko | | |
|---|------------------|--------------|--------------|-------------------|--------------|--------------|
| | Urtea | | | Urtea | | |
| | 09(*) | 10(*) | 11 | 09 | 10 | 11 |
| Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.)..... | 847 | 772 | 830 | 565 | 516 | 555 |
| Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.)..... | 837 | 806 | 860 | 558 | 538 | 575 |
| Ondare sarrerak (5. kap.)..... | 32 | 27 | 7 | 22 | 18 | 4 |
| A. Diru-sarrera arruntak | 1.716 | 1.605 | 1.697 | 1.145 | 1.072 | 1.134 |
| Langile gastuak (1.kap.)..... | 301 | 392 | 348 | 201 | 262 | 233 |
| Ondasun arrunten erosketa eta zerbitzuak (2. kap.)..... | 781 | 835 | 831 | 521 | 558 | 555 |
| Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (kap. 4)..... | 156 | 212 | 166 | 104 | 141 | 111 |
| B. Funtzionamendu gastuak | 1.238 | 1.439 | 1.345 | 826 | 961 | 899 |
| Aurrezki gordina (A-B) | 478 | 166 | 352 | 319 | 111 | 235 |
| - Finantza gastuak (3. kap.)..... | 2 | 1 | 7 | 1 | 1 | 5 |
| Emaitza arrunta | 476 | 165 | 345 | 318 | 110 | 230 |
| -Maileguen amortizazioa (9. kap.)..... | 45 | - | 21 | 30 | - | 14 |
| Aurrezki garbia | 431 | 165 | 324 | 288 | 110 | 216 |
| Inbertsio errealen besterentzea (6. kap.)..... | - | - | - | - | - | - |
| Jasotako kapital diru-laguntzak (7. kap.)..... | 509 | 2.002 | 569 | 340 | 1.337 | 380 |
| - Inbertsio errealak (6. kap.)..... | 853 | 1.616 | 1.352 | 569 | 1.079 | 904 |
| - Emandako kapital diru-laguntzak (7. kap.)..... | 14 | 14 | 19 | 9 | 9 | 13 |
| Kapitaleko eragiketen emaitza..... | (358) | 372 | (802) | (238) | 249 | (537) |
| Eragiketa ez finantzarioen emaitza (1etik 7rako kap.)..... | 118 | 537 | (457) | 80 | 359 | (307) |
| Diruzaintzako geldikina | 2.005 | 1.898 | 1.817 | 1.338 | 1.267 | 1.214 |
| Zorpetzea 12/31n | 6 | 6 | 431 | 4 | 4 | 288 |

(*) HKEEk fiskalizatu gabeko datuak.

Sarrera arruntak: 2011n % 6 egin dute gora, 2010eko ekitaldian % 6 behera egin eta gero, bakoitzaren aurreko ekitaldiarekiko. Hona hemen bariazio azpimarragarrienak:

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak, tasak eta bestelako sarrerak:** Sarrera hauek % 8 egin dute gora 2011ko ekitaldian eta % 9 murriztu dira 2010ekoan:
 - Zerga zuzenek eragindako diru-sarrerak % 6 igo dira aztergai izan dugun aldian, nahiz tipo zergagarriek bere horretan eutsi dioten. Igoera, nagusiki, OHZren katastro balioen igoyerak eragin du, KPI ezartzearen ondorioz.
 - Tasa eta prezio publikoen kontzeptuko tarifak bere horretan mantendu dira aztertutako aldian. Nolanahi den ere, kapitulu honetan aitortutako diru-sarrerak % 18 igo dira ekitaldian UE-6 Ibarako promotoreak gordailatutako abal bat, 72.121 eurorena, egikaritu behar izanaren ondorioz; abala indarreko planeamenduan



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

aurreikusitako pasabide bat eraikitzeko lanen ordezeko egikaritzari aurre egiteko baliatu da.

- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** Diru-sarrera hauek % 7 gehitu dira 2011ko ekitaldian; aldiz, 2010ekoan, % 4 egin zuten behera. FOFELen kontzeptuan aitortutako diru-sarrera hauen bilakaera ekitaldi bakoitzerako AFAn itunpeko zergen kontzeptuan jasotzeko zituen hasierako aurreikuspenak erregistratzean sortzen da. 2008-2011ko aldiari behin-betiko partaidetzak 355.460 euroren zorra, AFAn ordaintzekoa, sortu du.

Funtzionamendu gastuak: 2011ko ekitaldian sarrera hauek % 7 egin dute behera eta 2010eko ekitaldian % 16 gehitu dira. Hona hemen bariazio azpimarragarrienak:

- **Langile gastuak:** % 16 egin dute gora aztertutako aldiari. Udal langileen ordainsariei % 1,8 egin zuten gora 2010eko ekitaldian, Udaltz 2008-2010 hitzarmena aplikatu izanaren ondorioz eta 2011n ez dute aldaketarik izan. Gainerako igoera, nagusiki, udal langileen bajak betetzeko gastua da, Udalarari gainkostua eragiten diona.
- **Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak:** Kontzeptu honek eragindako gastuak % 6 egin du gora aztertutako aldiari. Igoera batik bat hirugarren adinekoen eguneko zentro bat irekitzearen ondorio da.

Aurrezki gordina: Magnitude honek saldo positiboa erakutsi du aztergai izan ditugun 3 ekitaldietan; honela, bada, 2011ko ekitaldian % 21 egin du ekitaldi horretan kitatutako diru-sarrera arrunten gainean.

Aurrezki garbia eta zorpetzea: Aurrezki garbiak finantza zamaren ordainketari aurre egin ondoren erabilgarri geratzen den aurrezki gordinaren atala islatzen du (interesak eta zorraren amortizazioa) eta Udalak baliabide arrunten bidez inbertsioak finantzatzeko duen gaitasuna erakusten du. Finantza zamari dagokionez, aztertutako aldiari baino lehenagoko ekitaldietan itundutako maileguen amortizazioa amaitu zen 2009ko ekitaldian. Urte horretan berean beste mailegu bat eskatu zen, 2 urteko gabezialdiarekin, eta horren gaineko erabilerarik ez da batere egin 2011ko ekitaldira arte. Horren ondorioz, aztertutako ekitaldietan finantza zamak behera egin du, baina 2012tik aurrera berriz ere gorabidean da; hori dela eta, Udalak 2012ko Aurrekontu Orokorretan kontzeptu horren izenean 116.100 euroren zenbatekoa aurreikusi du. Aurrezki garbiak saldo positiboa du aztertutako ekitaldi guztietan.

Zorpetze mailari dagokionez, 2009ko ekitaldian gauzatutako mailegua baliatzen hasi ostean, AFAn Diputatuen Kontseiluak inbertsio jakin batzuk finantzatzeko baimendutakoa, 2011ko abenduaren 31n zor bizia 430.804 eurorena da. Mailegu horretatik 208.243 euro gelditzen dira erabiltzeko. Bestetik azpimarratu beharrea da Udalak ordaintzeko duela FOFELen 2008, 2009 eta 2011ko likidazio negatibo behin-betikoen zati bat, 355.460 eurorena, Egoeraren Balantzean zor modura jaso gabe dagoena.



Kapital eragiketen emaitza: Magnitude honek saldo negatiboa izan du aztertutako 2009 eta 2011ko ekitaldietan eta saldo positiboa 2010ean. Udal honen inbertsioak ehuneko handi batean beste administrazio publiko batzuek emandako diru-laguntza bidez finantzatzen dira. Magnitude honetako saldoen bariazioa justifikatzen da aitortutako diru-sarreraren eta eraginpeko lanen egikaritze artean aurrekontuan dagoen desorekagatik, izan ere Udalak diru-sarrerak kontabilizatzen ditu diru-laguntza emakida ebazten den ekitaldian.

Aurrekontuaren egonkortasuna: 2011ko ekitaldiak, aurrekoek ez bezala, eragiketa ez finantzarioen emaitza negatiboa erakusten du, izan ere gauzatzeko dauden obrak finantzatzeko emandako diru-laguntzek gora egin dute. Horren ondorioz, 2012ko maiatzaren 30eko Udalbatzak ekonomia-finantza plan bat onartu du, ondoko aurrekontuko 3 ekitaldietan desoreka egoera zuzenduko duen sarrera eta gastuen politika zehaztuko duena. Aipatutako planak 2012ko abenduaren 31n 238.819 euroren Diruzaintza Geldikina izatea aurreikusten du eta 2013 eta 2014an eragiketa ez finantzarioen 115.824 eta 120.166 euroren saldoak, hurrenez hurren.

Diruzaintza geldikina: Magnitude honek % 9 egin du behera aztergai izan dugun aldian. Nolanahi ere, Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikinak % 53 egin du behera aztertutako aldian eta horren zenbatekoa 2011ko abenduaren 31n 527.374 eurorena izan da, mailegu berriarekin eta/edo beste administrazio publiko batzuetako diru-laguntzekin azken ekitaldietan gauzatutako lanen finantzatu gabeko ehunekoari aurre egiteko baliatu delako.

Ondorioa: Udal Administrazioek egiten dituzten inbertsioen balizko finantzaketa iturriak honako hauek dira: ekitaldi bakoitzean sortzeko gai diren aurrezki garbia, diruzaintza geldikinak eta diru-laguntza bidez edo zorpetze berri baten bidez eskura dezaten kanpoko finantzaketa.

Aramaioko Udalak aztertutako aldian aurrezki garbi positiboa badu ere, Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikinak % 53 egin du behera eta finantza erakundeekiko zorpetzea zerokoa izatetik 2011ko ekitaldian kitatutako sarrera arrunten % 25 egitea aldatu da.

2012ko ekitaldirako Udalak aurreko ekitaldiko aurrekontuekiko % 26ko aurrekontu txikiagoak onetsi ditu, gastu arrunta % 3 urrituz eta inbertsio maila nabarmen murriztuz. Gastu eta inbertsioen murrizketa hau batik bat FOFELetik eratorritako diru-sarrerak % 15 behera egitea aurreikusi izanak eragin du, Udalak aurrezki garbia zero izatea aurreikusi duela; honenbestez, magnitude hau ez daiteke ekitaldian inbertsioak finantzatzeko iturri modura baliatu. Gainera, 2012ko ekitaldian txertatutako kredituak 2011ko abenduaren 31ko Diruzaintza Geldikinaren % 82arekin finantzatu dira eta baliatzeko dago 2009ko ekitaldian gauzatutako mailegutik inbertsio horiei aurre egiteko AFAn baimendutako saldoak, 208.243 eurorenak; honek guztiak Udalaren etorkizuneko zama gehitzea eragingo du.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

V.1 UDALA

2011-KO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA Euroak milakotan

| SARRERAK | ERANSK. | AURREKONTUA | | | ESKUBIDE. | KOBRA. | | % EXEK. |
|---------------------------------------|---------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|------------|--------------|
| | | HASIER. | ALDAK. | B.-BETIK. | KITAT. | KOBR. | GABEA | |
| 1. Zerga zuzenak | A.3 | 466 | - | 466 | 463 | 434 | 29 | 99 |
| 2. Zeharkako zergak | A.3 | 151 | - | 151 | 40 | 28 | 12 | 26 |
| 3. Tasak eta bestelako sarrerak | A.3 | 392 | - | 392 | 327 | 316 | 11 | 83 |
| 4. Transferentzia arruntak | A.4 | 942 | - | 942 | 860 | 846 | 14 | 91 |
| 5. Ondare sarrerak | | 16 | - | 16 | 7 | 7 | - | 44 |
| 7. Kapital transferentziak | A.4 | 481 | 355 | 836 | 569 | 193 | 376 | 68 |
| 8. Finantza aktiboak | | - | 1.829 | 1.829 | - | - | - | (*) - |
| 9. Finantza pasiboak | A.9 | - | 795 | 795 | 446 | 446 | - | 56 |
| SARRERAK GUZTIRA | | 2.448 | 2.979 | 5.427 | 2.712 | 2.270 | 442 | (*)75 |

(*) Exekuzioaren % kalkulaterakoan Diruzaintza Geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

| GASTUAK | ERANSK. | AURREKONTUA | | | OBLIG. | ORDAIN. | | % EXEK. |
|---|---------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|------------|-----------|
| | | HASIER. | ALDAK. | B.-BETIK. | AITORT. | ORDAINK. | GABE | |
| 1. Langileria-gastuak | A.5 | 397 | 2 | 399 | 348 | 328 | 20 | 87 |
| 2. Ondasun arrunt eta zerbitz. erosketak. | A.6 | 978 | 74 | 1.052 | 831 | 716 | 115 | 79 |
| 3. Finantza gastuak | A.9 | 1 | 8 | 9 | 7 | 7 | - | 78 |
| 4. Transferentzia arruntak | A.7 | 209 | (2) | 207 | 166 | 130 | 36 | 80 |
| 6. Inbertsio errealak | A.8 | 844 | 2.857 | 3.701 | 1.352 | 1.089 | 263 | 37 |
| 7. Kapital transferentziak | A.7 | 19 | 15 | 34 | 19 | 5 | 14 | 56 |
| 9. Finantza pasiboak | A.9 | - | 25 | 25 | 21 | 21 | - | 84 |
| GASTUAK GUZTIRA | | 2.448 | 2.979 | 5.427 | 2.744 | 2.296 | 448 | 51 |
| SARRERAK - GASTUAK | | | | | (32) | | | |

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

| | ERANSK. | HASIER. | KOBRA./ | | AZKEN |
|----------------------------------|---------|---------|-------------|---------|-------|
| | | ZORRA | BALIOG. | ORDAIN. | |
| Zordunak | A.10 | 2.346 | 16 | 800 | 1.530 |
| Hartzekodunak | | 806 | 6 | 783 | 17 |
| AURREKONTU ITXIEN EMAITZA | | | (10) | | |



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

| AURREKONTUAREN EMAITZA | Euroak milakotan |
|--|------------------|
| Kitatutako eskubideak..... | 2.712 |
| Aitortutako obligazioak..... | (2.744) |
| AURREKONTU ARRUNTEKO ERAGIKETEN EMAITZA | (32) |
| AURREKONTU ITXIEN ERAGIKETEN EMAITZA | (10) |
| EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA | (42) |
| Finantzaketa desbideratzeak | 304 |
| Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak..... | 126 |
| DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA | 388 |

| DIRUZAINZA GELDIKINA | Euroak milakotan |
|--|------------------|
| Diruzaintza Geldikina 11.1.1ean | 1.898 |
| Aurrekontuaren emaitza | (42) |
| Kaudimengab. zuzkiduraren hornid. bariozioa..... | (39) |
| DIRUZAINZA GELDIKINA 11.12.31-N | 1.817 |
| Diruzaintza | 540 |
| Aurrekontuko zordunak..... | 1.972 |
| Aurrekontuz kanpoko zordunak..... | 29 |
| Aurrekontuzko hartzekodunak..... | (465) |
| Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak | (179) |
| Kaudimen-gabeziatarako hornidurak (A.10)..... | (80) |
| DIRUZAINZA GELDIKINA 11.12.31-N | 1.817 |
| Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza Geldikina..... | (1.289) |
| GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA GELDIKINA | 528 |
| 11.12.31-N ZORPETZEA (A.9) | 431 |



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEA 2010 ETA 2011-KO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

| AKTIBOA | ERANSKINA | 31.12.11 | 31.12.10 | PASIBOA | ERANSKINA | 31.12.11 | 31.12.10 |
|---------------------------------|-----------|---------------|---------------|-------------------------------------|-----------|---------------|---------------|
| IBILGETUA | | 9.786 | 9.790 | FUNTS PROPIOAK | | 11.172 | 11.681 |
| Erab. Orok. emandako ibilg..... | A.8 | 38 | 502 | Ondarea..... | | 15.705 | 15.705 |
| Ibilgetu ezmateriala..... | A.8 | 14 | 62 | Erabilera orokorrerako ondarea..... | A.8 | (14.552) | (13.484) |
| Ibilgetu materiala..... | A.8 | 9.666 | 9.162 | Ekitaldi itxien ondorioak..... | | 9.460 | 8.248 |
| Ibilgetu finantzarioa..... | A.8 | 68 | 64 | Galerak eta Irabaziak..... | | 559 | 1.212 |
| ZORDUNAK | | 1.921 | 2.345 | HARTZEKODUNAK EPE LUZERA | | 341 | - |
| Aurrekontuzkoak..... | | 1.972 | 2.346 | Zorrek e/luz..... | | 341 | - |
| Askotariko zordunak..... | | 3 | 7 | HARTZEKODUNAK EPE LABURRERA | | 734 | 1.009 |
| Entitate publiko zordunak | | 26 | 33 | Aurrekontuzko hartzekodunak..... | | 465 | 806 |
| -Kaudimengabez. zuzkid..... | | (80) | (41) | BEZarengatiko hartzekodunak..... | | - | 9 |
| FINANTZA KONTUAK | | 540 | 555 | Erakunde Publiko hartzekodunak..... | | 13 | 19 |
| Diruzaintza..... | | 540 | 555 | Zorrek epe lab..... | | 90 | 6 |
| | | | | Bermeak eta gordailuak e/lab..... | | 147 | 169 |
| | | | | Aplikatzeko dauden sarrerak..... | | 19 | - |
| AKTIBOA | | 12.247 | 12.690 | PASIBOA | | 12.247 | 12.690 |

2010 ETA 2011-KO EKITALDIETAKO GALERA-IRABAZIEN KONTUAK

Euroak milakotan

| GASTUAK | 11 URTEA | 10 URTEA | SARRERAK | 11 URTEA | 10 URTEA |
|--------------------------------------|------------|--------------|--|----------|------------|
| Langileria-gastuak..... | 364 | 397 | Negozio zifr. zenbateko garbia | 227 | 249 |
| Kanpoko zerbitzuak..... | 817 | 830 | Zerga zuzenak..... | 468 | 453 |
| Emand. transf. eta dirulag..... | 179 | 226 | Zeharkako zergak..... | 35 | 42 |
| Amortizaziorako zuzkidura..... | 319 | 292 | Jasotako transf. eta dirul..... | 1.428 | 2.808 |
